

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIA

HERRITARREKIKO ETA
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIK

Foru gobernua 3.633 milioi eurotan finkatu du 2018rako gastuaren muga, aurten baino 110 milioi gehiago

% 3,13ko igoera gertatu da 113 milioi euroko finantzarioak ez diren diru-sarreraren gehitzearen aurreikuspen batengatik, % 0,4ko defizit-helburua kalkulatu

Asteazkena, 2017.eko irailak 13

Nafarroako Gobernuak 3.633,5 milioi eurotan finkatu du 2018. urterako gastu ez-finantzarioaren muga, beraz, 2017an onartutako ordainketa publikoaren aldean 110,4 milioi euroko igoera ekarri du (% 3,13), 3.523 milioi eurokoa izan zelako.

Kopuru hori ezartzeko, Nafarroarako aurreikuspen makroekonomikoak, datorren urterako bilketa-balioespenen hobekuntza eta aurreikusitako zor eta defizit betebeharrak kontuan hartu dira. Horrela, 2018an ezin izango da Foru Komunitateko Barne Produktu Gordinare (BPG) % 0,4a baino handiagoa.

Zehazki, Foru Ogasunak 3.733,8 milioi euroko diru-sarrera ez finantzarioak biltzea aurreikusten du 2018an. Horiei zor jaulkipenaren bidez lortuko diren 82,8 milioi euroak gehitu behar zaizkie, defizit helburua betetzeko gehieneko muga dena. Azkenik, kopuru horiei, kontabilitate nazionaleko doiketei dagozkien 30,4 milioi euroak gehitu behar zaizkie. Horrek guztiak, 3.847 milioi euroko gastu muga ekartzen du.

Zenbateko horretatik, 213,6 milioi euro Tokiko Ogasuneko Funtsera bideratzen dira, 2017an baino 6,4 milioi gehiago.

Aurreikuspen makroekonomikoak

Zehazki, foru Gobernuak % 2,7ko hazkundera balioesten du Nafarroak datorren urtean izango duen benetako BPGn. Bestalde, Gobernuak % 2,5 inguruko hazkundera aurreikusten du enpleguan 2017. urte honetarako, eta % 2,1ekoa 2018rako.

Izapideak

Behin gastuaren muga finkatuta, Departamentuek 2018rako gastu-proposamenak egingo dituzte. Behin proposamenak jasota, Nafarroako Gobernuak 2018rako aurrekontuen aurreproiektua onartuko du eta Nafarroako Ekonomia eta Gizarte Kontseilura, Ingurumen Kontseilura eta



Ogasuneko eraikinaren fatxada.

Toki Araubideko Batzordera bidaliko irizpena eman dezan. Urrats hori, proiektua onartu aurreko urratsa da eta Nafarroako Parlamentura bidaliko du eztabaidatzeko.